

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Naziaren ajea



Ezkerreko argazkian, militar alemaniarrek *Heinkel HE-51A* hegazkinera igotzeko prest. Horrelako bat zeraman Hefter tenienteordeak Gasteizen, 1936ko irailaren bukaerako egun hartan. Goian, Dato kalea 30eko hamarkadan.

GASTEIZ, 1936KO IRAILAREN 28A. Arabako hiriburuko agintari zibil eta militarrek hainbat ekitaldi antolatu zituzten frontera joateko prest zeuden tropa nazionalei eta Alemaniako Condor Legio ezagunari omenaldia egiteko asmoz.

Handik bizpahiru egunera parlamentu errepublikarrak Euskal Autonomia Estatutua onartu zuen; astebe-tera gerrako Jaurlaritza osatu zen, eta honen lehentasunetako bat Euzko Gudaroztea antolatzea izan zen. Euskal armada saiatu zen Gasteiz hartzen 1937an, Legutioko erasoaren bidez, baina porrota izan zen saiakera hura.

1936ko uztailaren 19an bertan, altxamenduaren biharamunean, Camilo Alonso Vega teniente koronelak Araba beregain hartu zuen, gobernadore zibila aldatuz; errepublikarrek greba orokorrerako deialdia egin arren, ez zuten arrakastarik izan. Beraz, irailaren amaierako egun hartan, Gasteiz frankistena zen, baita hainbat militar alemaniarren behin-behineko egoitza ere.

Dato kalean desfile militarra egin zuten, eta Plaza Berrian kontzentrazioa. Eta azkenik alemaniarrei afaria eskaini zieten Círculo Vitoriano-n. Afarian, aginte alemaniarrek honakoa

proposatu zuten jasotako omenaldia eskertzeko asmoz: hurrengo egunean *Heinkel HE-51A* biplanoz osatutako eskoadrilak hegaldia egingo zuen Gasteiz gainean, eta hegazkinetako batetik lore-sorta botako zuten udaletxearen parean. Lore-eskaintza berezia egiteko Leon Ekkard Hefter tenienteordea hautatu zuten. Ekkard Hefter Koloniar jaioa zen eta hogeita lau urte zituen.

Alemaniarrek Frontón hotela zuten ostatu eta, afaria amaituta, goizeko ordu txikiak arte iraun zuen festa egin zuten bertan.

Biharamunean, 1936ko irailaren 28an Hefter tenienteordea zeremoniarako prest zegoenik ezin esan; gau guztia parrandan pasata, egoera fisiko tamalgarrian zegoen. Lehen pasaldian dagoeneko pilotuaren maniobra arris-kutsuak ikusi ahal izan zituzten plazan bildutakoek. Bigarren, baxuegi egin zuen hegan eta lurreratze-trenak teitatu bat jo zuen. Kontrola galduta, plazan erori zen biplanoa. Hefter tenienteordea hegazkinaren hondakinen artean harrapatuta hil zen, kiskalita. Baina Antonio Peral Maza esneza-learen eta Lopez Erauskin izeneko beste pertsona baten heriotza ere eragin zuen pilotu naziaren ajeak. ■

ARRASTOAK

JUDUEN MUNDUKO Kongresua burutu da berriki eta, besteak beste, naziek lapurtutako hainbat eta hainbat pintura eta eskultura oraindik itzuli ez zaizkiela salatu dute. Guztira, 110.000 artelan direla diote, eta zailtasun handiko zeregina dela horiek guztiak erreklamatzear, askotan dokumentazioa falta delako. Baina tarteka artelanak jabeen oinordekoen eskuetara itzultzen dira, duela gutxi Kirchner-en *Berliner Strassenszene* lanarekin, gertatu bezala.

KISS KISS BANG BANG

izeneko erakusketa prestatu dute Bilboko Arte Eder Museoa, arteak eta feminismoak 45 urtetan eskutik egindako ibilbidea biltzeko asmoz. Sortu zene-tik gaur egun arte mugimen-duak izan duen bilakaera errepasatu eta emakumeen identitateari buruzko hausnarketak proposatzen du erakusketak, artelanen bidez. Besteak beste, Guerrilla Girls-en ekintzak, Yoko Ono-ren performanceak eta Orlan-en argazkiak bildu dituzte. Erakusketa irailaren 9a arte egongo da zabalik.



Do women have to be naked to get into the Met. Museum? izenburuko lana, Guerrilla Girls taldeak 1989an egina.